

Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO AZAROAREN 27AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/11/13KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2018ko azaroaren 13ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- KONTSEJUZARRA KALEA 9AN JARRITAKO IGOGAILU BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0305

KONTSEJUZARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H20364444) ordezkartzan diharduen SILVIA LUIS ARBIZU andereak, Kontsejuzarra kalea 9an jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko irailaren 12an, zera erabaki zuen: KONTSEJUZARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H20364444) ordezkartzan diharduen SILVIA LUIS ARBIZU andereari, Kontsejuzarra kalea 9an igogailua berria jartzeko eta zero kotara jaisteko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 60.182,98 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 61.533,46 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 450 €
	Fidantza (%120): 540 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA



Usurbilgo Udala

Orain berriz, KONTSEJUZARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H20364444) ordezkarietan diharduen SILVIA LUIS ARBIZU andreak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako DSCak eta amaiera txostena aurkeztu dira.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Miren Dorleta Erausquin Alijostes andreak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Kontsejuzarra kalea 9an jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2017ko urriaren 3an ezarritako 540,00 €-tako fidantza (IE 36-2017) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES28 2095 5069 0710 6054 6156.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.

3.- ERMOTEGI HAUNDI BASERRIAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0508

MOISES ANDRES ZUBIRIA jaunak, Ermotegi haundi baserrian (Santuenea 33, 1. eskuina) jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko ekainaren 16an, zera erabaki zuen: MOISES ANDRES ZUBIRIA jaunari, Ermotegi haundi baserrian (Santuenea 33, 1. eskuina) igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 27.462,19 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 27.462,19 €



Usurbilgo Udala

Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 132,46 €
	Fidantza (%120): 158,95 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, MOISES ANDRES ZUBIRIA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako DSCa aurkeztu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Miren Dorleta Erasquin Alijostes andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2018ko azaroaren 19an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Ermotegi haundi baserrian (Santuenea 33, 1. eskuina) jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.


4.- IRAZU KALEA 12AN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0391

IRAZU KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20910436) ORDEZKARITZAN DIHARDUEN B&A INMOGEST S.L. ADMINISTRAILEAK, IRAZU KALEA 12 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA ESKATU DU.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko abenduaren 20an, zera erabaki zuen: IRAZU KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20910436) ordezkarietan



Usurbilgo Udala

diharduen B&A INMOGEST S.L. administraileari, Irazu kalea 12 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 146.183,62 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 98.973,98 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 450 €
	Fidantza (%120): 540 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, IRAZU KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20910436) ordezkartzan diharduen B&A INMOGEST S.L. administraileak obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako DSCak 2018ko urriaren 9an aurkeztu dira baina azken txostena falta da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Miren Dorleta Erausquin Alijostes andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2018ko azaroaren 8an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio baina hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza amaiera txostena aurkeztutakoan bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Irazu kalea 12 etxean jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2018ko uztailaren 6an ezarritako 540,00 €-tako fidantza (IE 7-2018) bueltatzeko Hondakinen Kudeaketaren amaierako txostena aurkeztu beharko da.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

5.- TELXIUS TORRES ESPAÑA, S.L.U. ENPRESARI, SAN ESTEBAN 2 UR



Usurbilgo Udala

DEPOSITUAREN PAREAN INSTALATUTA DAGOEN TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENAREN LURZORUAREN OKUPAZIO BAIMENA BERRITZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2018-0515

TELXIUS TORRES ESPAÑA, S.L.U. (IFK: B-87494936) enpresak, San Estebango ur deposituaren alboko telefono mugikorreko estazioaren erabilera emakida luzatzeko eskaera egin du.

AURREKARIAK

1997ko irailaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak, zera erabaki zuen hitzez hitz:

8.- TELEFONIKA SEVICIOS MOVILESEN ESKAERARI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIA RATIFIKATZEA.

Telefonica Servicios Moviles-ek aurkeztutako eskaerari buruz Alkateak 98-02-16an emandako dekretua ratifikatzen du Gobernu Batzordeak, eta aipatutako dekretuak hitzez-hitz hauxe dio:

“JOSE ANTONIO ALTUNA AIZPURUA, Usurbilgo Alkate jaunak, gaurko egunez, honako hau eman du:

1997ko irailaren 23ko Gobernu Batzordeak Telefonica Servicios Moviles S.A.-ri San Estebango depositu ondoko 50 m²-ko lur zati bat uztea erabaki zuen. Lagapenaren kanona bere momentuan erabakiko zen, baina Udalaren lurretan jarri behar duen antenaren zati baten erabilpena baimendu beharko zuen, horrela Udalak beste hirugarren bati lagatu ahal izateko, herriaren telekomunikazio zerbitzua hobetzeko.

Telefonica Servicios Moviles-ek lagapena onartzen du eta Udalak hirugarren bati instalatu nahi den antenaren parte bat lagatzeko adostasuna ematen du, beti ere Telefonica Servicios Moviles-erekin hitzartutako akordioak betetzen diren bitartean, dorrearen gehienezko kotatik bost metro behetik telekomunikazio antenak instalatzeko eta dauden instalazio ekipoak edo mantenimendu lanak galerazten ez diren bitartean.

Gainera kontutan harturik obraren kostuak eta azpiegitura lanak enpresaren kontura direnez, inongo kanonik ez jartzea eskatu du.

Guzti honengatik, Erregimen Lokaleko arauak eman dizkidaten atribuzioak kontutan harturik, zera erabaki dut:

LEHENENGO: San Estebango deposituan 50 m²ko lur zati baten lagapena Telefonica Servicios Moviles-i egitea, bertan antena bat eta dagozkion zerbitzuak instalatzeko, eskaerako idatzian erantsirik doan proiektuan arabera.



Usurbilgo Udala

Dena den, lagapena hurrengo baldintzetara loturik doa:

- a) Lagapenaren epea 10 urtekoa izango da, bost urteko bi denboraldiz luzatu daitekelarik, bi aldeetako batek denuntziatzen ez duen bitartean, beste aldeari epea amaitzeko sei hilabeteko aurrerapenarekin jakinerazi beharko zaiolarik.
- b) Lagapenarengatik ez da inongo kanonik ezarriko, baina Telefonica Servicios Moviles enpresak, dekretu honen aurrekinetan azaltzen den bezala, Udalarik instalatutako antenaren erabilpena baimendu beharko dio, lehen aipatutako baldintzetan hirugarren bati lagatu ahal izango delarik.

BIGARREN: Hurrengo Gobernu Batzordeari akordio honen berri emango zaio.”

LAGAPENAREN LUZAPENA

Orain berriz, TELXIUS TORRES ESPAÑA, S.L.U. (IFK: B-87494936) enpresak, 2018ko irailaren 28an, lagapenaren luzapena eskatu du beste 15 urtetarako.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, eskaera aztertu ostean, 2018ko azaroaren 14an, honako txostena eman du:

ESKAERA: Telefonía mugikorreko antenaren lur zoru okupazio baimena berriztatu
ESKATZAILEA: Telxiux torres España S.L.
KOKAPENA: San Esteban 2 ur deposituaren lurretan
ESP.ZENB.: HZ.06/2018-0515


TXOSTENA

San Esteban 2 deposituaren parean instalatuta dagoen telefonía mugikorreko antenaren lurzoruaren okupazio baimena (50 m²) berriztatzea eskatzen du Telxiux Torres España S.L.U.-ek

1997ko irailaren 23ko Gobernu Batzordean hurrengo erabakia hatu zen:

Guzti hori azterturik, Hirigintza eta Obra batzordeak proposatuta, zera erabaki da:

1) Telefonía Servicios Moviles,S.A. Unipersonal enpresari San Estebango depositu ondoan dagoen udal lurzatiaren 50 m²ko lurzatiaren erabilera uztea, baina kontratua erabilera uzteagatik izango da eta ez da onartzen alokairu kontratazioa.



Usurbilgo Udala

2) Erabilerarengatik prezioa edo kanona lurzati hori legez dagokiona jarriko zaio. Gainontzeko baldintzak, enpresak proposatutakoaren arabera onartuko lirateke, baina antena horretan, goi partean enpresak zati bat utzi beharko du Udalarentzat, honen telekomunikazio beharrari aurre egiteko edo beste edozeini utzi ahal izateko. Tarte hori kontratuan finkatuko da eta Udalaren esku dohain geldituko da.

3) Dena den, erabaki hau anteproiektuaren arabera hartu denez, proiektua aurkezten denean beste baldintza batzuk jar daitezke, behin betiko proiektuan orain agertzen ez den beste zerbaitek agertzen bada.

4) Alkate jauna ahalmentzea Udalaren izenean lurzati horren erabilera arautuko duen kontratua sinatzeko.

5) Erabaki hau bai Hirigintza eta Zerbitzu batzordeei jakineraztea, ba Kontuhartzaileari ere horren berri ematea.

1998ko otsailaren 24ko Gobernu Batzordean erabaki zen, lagapenarengatik kanonik ez ezartzea.

“JOSE ANTONIO ALTUNA AIZPURUA, Usurbilgo Alkate jaunak, gaurko egunez, honako hau eman du:

1997ko irailaren 23ko Gobernu Batzordeak Telefonica Servicios Moviles S.A.-ri San Estebango depositu ondoko 50 m²-ko lur zati bat uztea erabaki zuen. Lagapenaren kanona bere momentuan erabakiko zen, baina Udalaren lurretan jarri behar duen antenaren zati baten erabilpena baimendu beharko zuen, horrela Udalak beste hirugarren bati lagatu ahal izateko, herriaren telekomunikazio zerbitzua hobetzeko.

Telefonica Servicios Moviles-ek lagapena onartzen du eta Udalak hirugarren bati instalatu nahi den antenaren parte bat lagatzeko adostasuna ematen du, beti ere Telefonica Servicios Moviles-erekin hitzartutako akordioak betetzen diren bitartean, dorrearen gehieneko kotatik bost metro behetik telekomunikazio antenak instalatzeko eta dauden instalazio ekipoa edo mantenimendu lanak galerazten ez diren bitartean.

Gainera kontutan harturik obraren kostuak eta azpiegitura lanak enpresaren kontura direnez, inongo kanonik ez jartzea eskatu du.

Guzti honengatik, Erregimen Lokaleko arauak eman dizkidaten atribuzioak kontutan harturik, zera erabaki dut:

LEHENENGO: San Estebango deposituan 50 m²ko lur zati baten lagapena Telefonica Servicios Moviles-i egitea, bertan antena bat eta dagozkion zerbitzuak instalatzeko, eskaerako idatzian erantsirik doan proiektuan arabera.

Dena den, lagapena hurrengo baldintzetara loturik doa:


- a) Lagapenaren epea 10 urtekoa izango da, bost urteko bi denboraldiz luzatu daitezke, bi aldeetako batek denuntziatzen ez duen bitartean, beste aldeari epea amaitzeko sei hilabeteko aurrerapenarekin jakinerazi beharko zaiolarik.
- b) Lagapenarengatik ez da inongo kanonik ezarriko, baina Telefonica Servicios Moviles enpresak, dekretu honen aurrekinetan azaltzen den bezala, Udalari instalatutako antenaren erabilpena baimendu beharko dio, lehen aipatutako baldintzetan hirugarren bati lagatu ahal izango delarik.

BIGARREN: Hurrengo Gobernu Batzordeari akordio honen berri emango zaio.”

Antena kokatuta dagoen lursaila, nekazaritza eta abeltzaintza babesteko lurzoru ez urbanizagarrian komunikabideen sistema orokorreko eremuan kokatzen da



Usurbilgo Udala



Aztertu ditut espediente honetako eskabidea, egitasmoa eta gainerako agiri guztiak. Eskaeraren egokitasuna dela eta, proposatzen dut eskatutakoari baimena ematea hurrengo baldintzarekin:

- San Esteban 2 deposituaren parean instalatuta dagoen telefonia mugikorreko antenaren lurzoruaren okupazio baimena berriztatzea,
- Lurzoru okupazioaren dagokion tasa ordaintzea.


2018ko azaroaren 14an
Udal aparejadoreak

Gauzak horrela, udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: TELXIUS TORRES ESPAÑA, S.L.U. (IFK: B-87494936) enpresari, San Esteban 2 ur deposituaren parean instalatuta dagoen telefonia mugikorreko antenaren lurzoruaren okupazio (50 m2) baimena berritzea honako baldintzekin:

- Lagapenaren epea 10 urtekoa izango da, bost urteko bi denboraldiz luzatu daitekelarik, bi aldeetako batek denuntziatzen ez duen bitartean, beste aldeari epea amaitzeko sei hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko zaiolarik.
- Lagapenarengatik lurzoru okupazioaren dagokion tasa kobratzea.
- TELXIUS TORRES ESPAÑA, S.L.U. enpresak, antenaren goi partean zati bat utzi beharko du Udalarentzat, honen telekomunikazio beharrari aurre egiteko edo beste edozeini utzi ahal izateko. Tarte hori Udalaren esku dohain geldituko da.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Erabaki honen berri TELXIUS TORRES ESPAÑA, S.L.U. (IFK: B-87494936) enpresari eta Errenta eta Ondare Teknikariari ematea.

6.- GUIFOR, S.L. ENPRESARI, ATALLU INDUSTRIALDEKO AZEKIAUNDI KALEA 2 ETA 4AN BASOLANETARAKO MAKINEN SALMENTA ETA MANTENURAKO PABILOIA ETA ZELAIGUNEA EGOKITZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0266

GUIFOR, S.L. enpresak, Atallu industrialdeko Azekiaundi kalea 2 eta 4an basolanetarako makinena salmenta eta mantenurako pabiloia eta zelaigunea egokitzeko obretarako udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	290.329,37 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.450 € Fidantza (%120): 1.740 €.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Miren Dorleta Erausquin Alijostes andereak, aurkeztutako proiektua aztertu ostean, 2018ko azaroaren 15ean, honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari

OBRA BAIMENA

ATALLU INDUSTRIALDEKO AZEKIANDI 2 ETA 4 AN BASOLANETARAKO MAKINEN SALMENTA ETA MANTENURAKO PABILOIA ETA ZELAIGUNEA EGOKITZEKO OBRA BAIMENA

ESKATZAILEA: GUIFOR S.L.

ESKAERA: Atallu Industrialdeko Azekiaundi 2 eta 4an basolanetarako makinena salmenta eta mantenurako pabiloia eta zelaigunea egokitzeko obra baimena.

KOKAPENA: Azekiaundi kalea 2 eta 4, Atallu Industrialdea, Usurbil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: **HZ.04/2018-0300 OBRA BAIMENA**

OBRA PROIEKTUAREN PEM: 290.329,37euro

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.450,0 euro **Fidantza (%120): 1.740,0 euro**

AURREKARIAK

- 2018ko ekainaren 14ean Matias Grande Pison jaunak, GUIFOR S.L.



Usurbilgo Udala

enpresaren izenean Atallu industrialdeko Azekiandi 2_4ean basolanetarako makinena salmenta eta mantenurako pabiloia eta zelaigunea egokitzeko obra baimena eskatu du Usurbilgo Udalean.

- 2018ko uztailaren 18an dokumentazio osagarria aurkeztu da.

Erlazionatuak:

HZ.07/2018-301: Atallu Industrialdeko Azekiaundi 2-4ean basolanetarako makinena salmenta eta mantenurako jarduera baimena.

TXOSTENA

Matias Grande Pison jaunak, GUIFOR S.L. enpresaren izenean, Atallu Industrialdeko Azekiandi 2-4Ean basolanetarako makinena salmenta eta mantenurako obra proiektua aurkeztu du, obra baimena baimena eskatuz. Aurkeztu den dokumentazioa da, eskaera orria eta obra proiektua, teknikari gaituak izenpetua (ingeniaria) eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia (COIIG 2018/06/13). obra proiektuak barneratzen ditu: memoria (bertan Hondakinen Kudeaketa Azterlana), Segurtasun eta Osasun Azterlana, Baldintza Plegua, Aurrekontua eta planoak.

Eskaera eta dokumentazioa aztertuta honakoak esan daitezke:

- ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK; Dokumentuan esaten den bezala: *“la actividad principal es la venta y mantenimiento de maquinaria forestal”*.

Azekiandi 4ko partzela eta 2ko pabiloia, eraikia dagoena, indarrean diren Usurbilgo AASSTB-ren arabera hiri lurzoruan kokatzen da, A-104 ATALLU eremuan. Dagokion hirigintza fitxan honako erabilerak finkatzen dira: *“Erabilera industrial izango da, garbigunearen kasuan izan ezik”*.

Beraz, erabilera onargarria den heinean, horretarako bideratutako obrak ere baimengarriak izan litezke.

- x **Eraikigarritasuna:** Eraikuntzaren inguruan aurkeztutako dokumentazioan, 112,24ko solairuarte bat ikusten da aldagela, ofizina e.a.en gainekaldean.

Hirigintza fitxak tarteko solairuak baimentzen ditu: *“Solairuen okupaturiko azaleraren %50 gaitutako ez duen tarteko solairua eraiki ahal izango da, bulego, komun edo anitzeko erabiletarako”*. Ondorioz, 2112,24m²-ko eraikigarritasuna izan liteke, 2.000 m²-ko oin solairua izanik eta guztira %150-a gaitutako ez duenez.

- x **Aparkaleku kopurua:** Aurkeztu den 1.anexoan zuzendu dira planoak eta kanpo urbanizazioan, pabiloira sarbideak direla-eta, kendu diren aparkalekuak kanpa gunean barneratu dira *Atallu Industrialdeko Plan partzialaren 2. Aldaketaren 17. artikuluan (BOG 2011-09-15):*

“3. Azaleko aparkamendu plazen kopurua errespetatze aldera; eta bide publikoan aurrekustiako plazak kontutan izanik; partzela



Usurbilgo Udala

pribatuetarako sarbideengatik edota beste arrazoi batzeungatik, aparkamenduko plaza publikoak desagertzen diren kasuan, hauek partzela horietan ordezkatu beharko dira.

Jartzen duenari jarraituz.

- **LUR KUTSATUAK:** Era berean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharrari dagokionez adierazten da, IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAeko lurzoru kutsatuen inbentarioaren arabera GUIFOR S.L.-ren jarduera kokatu nahi den **lurzorua ez dagoela inbentariotua edo dokumentuan sartuta lur kutsatuak izan daitezkeen arriskuarekin.**
- **ISURKETAK:** **Jarduera dela-eta egin beharreko isurketak ahalbideratzeko dagozkion Añarbeko Urak-en baimenak beharko dira eta edonola, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako baldintzak betetzea. Baimenak eta gainontzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira ezinbestean lehen erabilera baimena lortzeko.**
- **SUTEEN AURKAKO BABESA:** Eraikin industrialetan Suteen babeserako Erreglamendua bete beharko da ezinbestean, jarduera baimenak finkatzen duen su karga eta arrisku mailaren arabera beti ere.
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA:** Hondakinen kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.450€koa da. 112/2012 dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.740 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikuloa) Orohar bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua.
- **BESTEAK:** Gainontzeko araudi aplikagarria bete beharko da ezinbestean (RITE, Tentsio baxuko Erregelamantua...)
- **JARDUERA BAIMENA:** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2018ko abuztuaren 14ean Aldeko txostena egin zuen, Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko irailaren 11 ean jardueren aldeko informea eman zion eta 2018ko azaroaren 14ean Ingurumen Sailburuordetzaren txosten teknikoa, aldekoa, ezartzen diren neurri zuzentzaileak betetzearen baldintzapean.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - x Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - x Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.



Usurbilgo Udala

x Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, GUIFOR S.L. enpresak Azekiaundi kalea 2(pabiloia) eta 4 (zelaigunea) ean basolanetarako makinen salmenta eta mantenuko jarduera **baimengarria** da beti ere Eusko Jauraritzak ezarri dituen neurri zuzentzaileak betetzearen baldintzapean.

Eta Azekiaundi kalea 2(pabiloia) eta 4 (zelaigunea) ean jarduera ezartzeko egin beharreko obrak ere **baimengarriak** dira.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2018ko azaroaren 15ean
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Miren Dorleta Erasquin Alijostes

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: GUIFOR, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Azekiaundi kalea 2 eta 4an basolanetarako makinen salmenta eta mantenuko pabiloia eta zelaigunea egokitzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.450 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.740 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.740 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2018-0300*" jarriaz kontzeptuan.

- Matias Grande Pison industri ingeniariak 2018ko ekainean (V/3/18/00343) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.



Usurbilgo Udala

- Jarduera dela-eta egin beharreko isurketak ahalbideratzeko dagozkion Añarbeko Urak-en baimenak beharko dira eta edonola, Eusko Jauraritzako Ingurumen Sailak ezarritako baldintzak betetzea. Baimenak eta gainontzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira ezinbestean lehen erabilera baimena lortzeko.
- Eraikin industrialetan Suteen babeserako Erreglamendua bete beharko da ezinbestean, jarduera baimenak finkatzen duen su karga eta arrisku mailaren arabera beti ere.
- Gainontzeko araudi aplikagarria bete beharko da ezinbestean (RITE, Tentsio baxuko Erregelamantua...)
- Jarduerak Eusko Jauraritzako Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak bete beharko ditu ezinbestean.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren



Usurbilgo Udala

egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.

- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrairindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

7.- GUIFOR, S.L. ENPRESARI, ATALLU INDUSTRIALDEKO AZEKIAUNDI KALEA 2 ETA 4AN BASOLANETARAKO MAKINEN SALMENTA ETA MANTENURAKO JARDUERA EZARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2018-0301

GUIFOR S.L. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko Azekiaundi kalea 2 eta 4an basolanetarako makinena salmenta eta mantenurako jarduera ezartzeko udal baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2018-0301

ESKATZAILEA: GUIFOR, S.L.

JARDUERA MOTA: Basolanetarako makinena salmenta eta mantenurako jarduera

NON KOKATUA: Azeki aundi kalea 2-4 / Atallu industrialdea

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 133. zenbakia, 2018ko uztailaren 11ean). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2018ko abuztuaren 14an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena.



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko irailaren 11ean aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri ditu.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: GUIFOR S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Azekiaundi kalea 2 eta 4an basolanetarako makinaren salmenta eta mantenturako jarduera ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Aldeko Egiaztapen Akta lortu arte, inolaz ere jarduerarik ez da legeztatuko.
- Akta hori eskuratzeko, eskatzaileak aldeztu aurretik Udalari eskatu beharko dio Egiaztapen hori burutzea. Eskararekin batera aurkeztuko da, Obra eta -instalazioetako Zuzendari Teknikoak egindako Ziurtapena, non zehaztuko baita aipatu instalakuntza eta obrak emandako baimenaren arabera eraiki direla. Era berean industria sailak luzatutako baimena aurkeztuko da. Baita jarduera proiektuaren beste ale bat ere.
- Baldin eta aipatu egiaztapenerako eskaera aurkeztu baino lehen, makina edo instalakuntzen funtzionamendua egiaztatuz frogaren batzuk egin behar balira, titularrak bost egun aurretik Alkateari adierazi beharko dio, froga horren iraupena zehaztatuz eta ingurua, pertsonak eta ondasunak arriskuan ez direla jarriko garrantzuz; froga horiek egiterakoan Udaletxeko Teknikoek bertaraterik izango dute.

BIGARRENA: Aurkeztutako Proiektuari egokiturik egingo dira obra eta instalazioak, beti ere, jarraian aipatuko diren baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

HIRUGARRENA: Neurri Zuzentzaileak. Jarduerak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako ondoko neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berariazko arauak bete behar dira.
2. Sustatzaileak lurzorua kutsa dezaketen jardueren titularren eginbeharrak beteko ditu, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeak ezarritakoak. Bereziki jarduera edo instalazioa uzten denean lurzorua kalitatearen arloko deklarazioaren prozedura hasteari dagokion eginbeharra bete beharko da.



Usurbilgo Udala

Aurreko eginbehar hau betetzeaz salbuetsita geratuko dira kutsatzeko ahalmen txikia daukaten jarduerak, baldin eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 25. artikuluko baldintzak ematen badira. Sustatzaileak salbuesteko kasu honen aurretiazko komunikazioa bidali beharko du ingurumen-organora.

3. Etorkizunean partzelaren mugen barruan hondeaketak edo lur mugimenduak aurreikusten dituzten obrak burutuko badira, sustatzaileak aurretiazko komunikazio bat bidali beharko du ingurumen-organora, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 38. artikulua ezarri bezala. Era berean, lur mugimenduak amaitzean hondeatutako materialak, egokiro karakterizatu ondoren, egokiro berrerabili edo kudeatu direla egiaztatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da ingurumen-organora.

Aipatutako hondeaketak 500m³ gainditzen baditu, egin aurretik ingurumen-organora gaika hondeatzeko plan bat onartu behar du, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 13. artikuluan ezarri bezala.

4. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 22.2. artikulua adierazitakoaren arabera, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udalari eta Erkidego Autonomoko ingurumen-organori.
5. Pabiloiaren zorua iragazgaitza izan beharko da.
6. Jarduera pabiloiaren barruan burutuko da beti eta zaratak ahalik eta gehien murrizteko eran. Pabiloiko ateak sartu irtenak ahalbidetzeko beharrezkoa den denbora tarte motzenez egongo dira irekita soilik.
7. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta, kontuan izaki Eskuragarri dauden Teknikarik Onenak, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igorlearen ezaugarriak. Jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko, urriaren 16ko, 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan aipatutako zarata-foku berriei aplikatzeko muga-balioak eta bat datorren gainontzeko araudikoak beteko ditu.
8. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.
9. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez. Ibilgailuak motorrak itzalita egon beharko dute lokal barruan, nahitaezko aparkamendu



Usurbilgo Udala

maniobretarako eta horrela errekeritzen duten konponketetarako soilik piztu ahal izango dira motorrak.

10. Jakinarazpen izapidetzea egin behar duen atmosfera kutsa dezaketen jarduera bezala, titularrak Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen, abenduaren 27ko, 278/2011 Dekretuak 16. artikuluan ezarritakoa bete beharko du. Bertan jardueraren osoko edo partekako hasieraz geroztik 6 hilabeteko epea ezartzen da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazpena egiteko. Behin jakinarazpena egin ondoren, titularrak izapide hori egin izana justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalean.
11. Era berean, Jarraibide teknikoak ematen dituen Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko den, 2012ko uztailaren 11ko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Aginduak ezarritako baldintzak beteko dira.
12. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sareak edukiko ditu:
 - Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
 - Komunetako uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira.
 - Garbitegiko urak. Saneamendu sarera isuriko dira arazketa tratamendu egokia egin ondoren.
13. Aipatutako isurketak baino ez dira existituko.
14. Jarduerari ekin aurretik, titularrak kolektorera Isurtzeko Baimena, erakunde aginpidedunek emandakoa, aurkeztu beharko du Udalean.
15. Sortutako hondakinak, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.
16. Espreski debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan. Hondakinak jatorrian banatuko dira eta aipatutako nahasketak ekiditearren hondakinak jasotzeko eta biltegiratzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.
17. Hondakinen sorkuntza ahal den heinean murriztu beharko da. Sortzen diren hondakinak uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 8 artikuluan ezarritako hierarkiak adierazitako lehentasunaren ordenarekin kudeatuko dira, hau da: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran eliminatuko dira.



Usurbilgo Udala

18. Sortutako hondakin ez arriskutsuei buruz (plastiko, paper, kartoi, egur, beira hondakinak, hondakin metaliko ez arriskutsuak, osagai arriskutsurik gabeko tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak etab.), hondakinak lehen aldiz kudeaketa-instalazio batera eraman aurretik jardueraren titularrak hondakin ez arriskutsuen adierazpena egin beharko du. Horretarako hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko, otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretuko VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko du.
19. Olioen hondakinak, izotzaren aurkakoak, bateriak, gas hoztaileak, disolbatzaileak, balazta likidoak, amiantoa daukaten balazten zapatak, konpresoreko purgetako urak, garbitegiko araztegiko lohiak, osagai arriskutsuak dauzkaten tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak eta orokorrean arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak sortzekotan, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeak, Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko, otsailaren 20ko, 110/2015 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Hondakin arriskutsu horiek biltegitratuta dauden denboran behar bezala etiketatuta egongo dira, teilatupean eta zoru iragazgaitzaren gainean eta egon daitezkeen isurketa akzidentalak atxikitzeke sistema bat edukiko dute.
20. Aipatutako uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik gabe, hondakinen sortzaile aurre-komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera abian jarri aurretik Ingurumen Sailburuordetzan. Komunikazio honen edukia Legearen VIII eranskinean aipatutakoa izango da.
21. Gurpilen aldaketak egiten badira, eta hondakin gisa erabiltzen ez diren pneumatikoak sortzen badira, hauek Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketa arautzeko martxoaren 13ko 46/2001 Dekretuan, eta erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzko abenduaren 30eko 1619/2005 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat eginik kudeatuko dira.
22. Sustantzia arriskutsuen biltegitratzea euren arteko bateraezintasuna kontuan izanik eta segurtasun datuen fitxen argibideak jarraituz egingo da. Material horientzako iragazgaitz, erresistente eta eraldaezin izango den lurzoru gainean biltegitratuko da, euri urekin kontaktua edukitzea ekidindo da eta isurketak atxikitzeke sistema bat edukiko du.

Isurketa baten ondoren atxikitzeke kubetoak berehala hustuko dira eta isuritako likidoa leku egokian biltegitratuko da berriro.




Usurbilgo Udala

Haizea, uholdeak, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.

23. Likido kutsakorren isuriak sor ditzaketen makineria eta instalazioek likido horien atxikipenerako sistema estanko bat eduki beharko dute eta hauen ekintza fisiko eta kimikoari eutsi. Sistemaren bolumena atxikiko dituen likidoek gainezka egitea ekiditeko adinakoa izango da. Kubetoan atxikitako isurketak sortzen direnean jasoko dira, eta aurreko neurrian deskribatutako baldintzetan biltegiratuko dira kudeatzaileak jaso arte, horrela kubetoa uneoro hutsik eta funtzional egon dadin.
24. Garbiketa, konponketa eta instalazioen bestelako mantenu lanak, hondakinen, isurketen edo emisioen sorrera murrizteko eran burutuko dira.
25. Arazketarako eta kutsaduraren prebentziorako ekipamenduen eta instalazioen (garbategiko arazketa sistema, atxikipen kubetoak, etab.) egoera ona bermatzeko helburuarekin, titularrak egin beharreko mantenu, ikuskaritza eta kontrol lanak eta lan hauen maiztasuna jasotzen dituen programa bat eduki beharko du. Lan hauen, emandako gertakarien eta, bere kasuan, hartutako soluzioen erregistro bat eraman beharko da.
26. Erabilitako olioien eta arriskutsu kontsideratutako edozein sustantziaren isurketa akzidentalak biltzeko egokia izango den material xurgatzailea eduki beharko da.
27. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
28. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
29. Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
30. Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa izapidetu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.
31. Txosten hau eta honen ondoren udaleko sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela honek, bere jarduera funtzionamenduan mantentzen den denboran zehar, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko dio indarrean sartzen doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

3/1998 Legearen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 59.2 atalak agintzen duenez, zuzenketak ezartzeak Udal -Agintaritza behartu egiten du, honek jardueraren lizentzia emateko administrazio ekitaldian sartu behar dituelarik. 64.1 artikulua araberako Udalei dagokien jarduera



Usurbilgo Udala

saikatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko eskumena.

LAUGARRENA: Aldez aurretik ondorengo Udal zerga ordainduko da:

- Obra eta Instalazioen zerga
- Argitalpenak

BOSGARRENA: Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udal honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udal ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udal honek horretarako beharrezko laguntza teknikoa eskainiko du.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

8.- LURDES ARRUTI ARANBURURI, KALEZARKO GAUARGI ETXEAREN (KALEZAR 63) ATZEKO PLATAFORMA ZABALTZEKO, LUR MUGIMENDUA ETA EUSTE HORMA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.

Esp zk.: HZ.04/2016-0382

LURDES ARRUTI ARANBURU andereak, Kalezarko Gauargi etxearen (Kalezar 63) atzeko plataforma zabaltzeko, lur mugimendua eta euste horma eraikitzeke udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	12.862,43 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 0 € Fidantza (%120): 0 €

Nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Maite García Azurmendi andereak, aurkeztutako eskaera eta proiektua aztertu ostean honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari

OBRA HAUNDIAK
Kalezarko Gauargi etxearen atzeko plataforma zabaltzeko lur mugimendu eta eskollera eraikitzeke baimen eskaerari txostena

KOKAPENA: Usurbil.
ESKAERA DATA: 2018ko urriak 29a
ESKATZAILEA: Lurdes Arruti Aranburu
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2016-0382



Usurbilgo Udala

AURREKONTUA: 12.862,43 €
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 0 €
FIDANTZA(%120): 0 €

AURREKARIAK


Interesatuak 2018/10/29an Gauargi etxearen atzeko plataforma zabaltzeko euste horma eraikitzeko baimena eskatzen du. Eskaeran eraikuntzarako proiektua aurkezten du, aurrekontu eta planoekin.

ARAUDIA

Usurbilgo arau subsidiarioak 65. artikulua Nekazaritza-Abelazkuntza eta Landazabal kategoria.

AZTERKETA eta PROPOSAMENA

Gauargi etxea arau subsidiarioak 65. artikulua arautzen dituen Nekazaritza-Abelazkuntza eta Landazabal Kategoriako lurretan kokatzen da. Etxearen mendebaldea Nekazaritza-Abelazkuntza Babes Bereziko Zona (Balio Estrategiko Handia) subkategorian dago eta ekialdeko eremua, lur mugimendu egin eta heuste horma jarri nahi dena, Nekazaritza-Abelazkuntza Babeseko Zona (Iragapen Landa Paisaia) (ikus irudia).



Araudiak honakoa dio: proiektua kokatzen den **Iragapen Landa Paisaia diren Babeseko Lurretan** "Sustatutako erabilera nekazaritza eta abelazkuntza" direla eta gainontzeko erabilerak debekatuta daudela, giza interes eta publikozkoak ezik.

Aurkeztutako proiektuak dio, lanak gauzatzearen helburua etxearen atzeko plataforma luzatzea dela azalera handiagoa duen eta erosoagoa den partela bat izateko. Beraz, lur eremu honetan aldaketak egiteko helburua ez da nekazaritza eta abelazkuntza erabilera sustatzea. Hau kontutan izanik, gauzatu nahi den lur mugimendua eta euste hormaren eraikuntza ez dira baimengarriak. Ondorioz KONTRAKO txostena igortzea proposatzen dut.



Usurbilgo Udala

Usurbilen, 2018ko azaroaren 8an
UDAL NEKAZARITZA eta INGURUMEN teknikaria
Izta.: Maite Garcia Azurmendi

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: LURDES ARRUTI ARANBURU andereari, Kalezarko Gauargi etxearen (Kalezar 63) atzeko plataforma zabaltzeko, lur mugimendua eta euste horma eraikitzeko udal baimena UKATZEA nekazaritza eta ingurumen teknikariak bere txostenean emandako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri LURDES ARRUTI ARANBURU andereari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:30ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.